

# IRRIA aldizkariarekin 5 urte gorako haurren irakurzaletasuna sustatzen

Lortu dugu idatzitakoa  
dekodifikatzea, saia gaitezen  
orain irakurtzen duguna  
ulertzen eta irakurtzeaz  
gozatzen!

Bost-sei urteko hurrekin lana egin dugunok edota seme-alabak ditugunok badakigu adin horretan nolako magia sortzen den haurren baitan irakurtzen eta idazten hasten direnean. Jende askok, "irakurtzen ikastea" testu idatziak deszifratzearekin erlazionatzen du, eta fase horretan kokatzen du bidaiaren bukaera, benetan, bidaiaren hasiera besterik ez denean.

Amaia da hasiera: irakurtzen dakitela  
pentsatzen hasten direnean, abiatzen  
da benetako bidaia!

## **IRRIA, hurrek irakurtzen dutena ulertzen hasteko tresna**

Irakurketa eta dekodifikazioaren arteko erlazioa ez da sinplea. Edozein gurasok edo irakaslek badaki testu bat zuzenean deszifratzea ez duela esan nahi haurra irakurtzen ari denaz jabetzen denik. Testu bat deszifratzea ezer ulertu gabe, arazo bat bihurtzen da. Hurrek aldizkarian aurkitzen dituzten testu laburrak, eta horien ondoan agertzen diren ilustrazioak, oso lagungarriak suertatuko zaizkie idatzitakoaren esanahia era naturalean ulertzeko.

## **IRRIA, adin horretan, guk irakurtzea eskertzen dutelako**

Haurra bera bakarrik irakurtzen hasten den garaian, zenbait gurasok eta irakaslek haurra bere kasa uzteko joera izaten du. Dagoeneko berak irakurtzen badaki, zertarako jarraitu nik irakurtzen? Gogoratu behar dizuegu, adin horretan ere, helduok hurrei irakurketa eskaintzen diegun neurrian, eredia izateaz gain, hizkuntza eta emozioak garatzeko eta baita haiekin lotura afektibo sendoa finkatzeko ere balio handia duela.

## **IRRIA irakurri, irakurtzea gustuko dutelako, besterik ez!**

Zenbat eta gehiago irakurri, gaitasun handiagoa izango dute hurrek irakurtzeko, eta guztiok dakigu irakurtzen ondo ikastea, aurreragoko ikasketetan arazoak ez izateko oinarrizko gaitasuna dela. Orduan, irakurri behar da ala irakurri dela erakutsi behar da? Zoritxarrez, adin horretako haur askotxori, irakurtzeko duten berezko gogoia eta motibazioa kentzen diegu irakurketari beste helburu didaktiko jakin batzuk eranstean. Hurrek, plazeragatik irakurri behar du, eta aldizkaria irakurtzea, norberak aukeratutako abentura pertsonal bezala bizi behar du.

## **IRRIA-k hizkuntza eredu aberatsa eskaintzen die**

Askotan esan izan digute gure aldizkaria "oso jaso" dela haurrentzat. Gu ez gaude ados baieztapen horrekin, hurrek literaturak eskaintzen dien eredu aberats horretatik elikatzen direlako. Ondo irakurtzeko, hurrek hitzen esanahia jakin behar dute, noski, baina irakurle onek, ezagutzen ez dituzten hitz horien esanahia testuinguruaren arabera ondorioztatzen ikasten dute, eta gaitasun hor ere garatu egin behar da.

## **IRRIA, irakurle onak lortzeko baliabide ezin hobea**

Irakurketa, bizitzan zehar uneoro erabiliko dugun oinarrizko gaitasuna izanik, gure seme-alabak eta ikasleak irakurle onak izateko estrategiak erabili beharko ditugu: irakurtzen hasi baino lehen, gertatuko denari buruzko iragarpenak egiten saiatu, hipotesiak egin; irakurtzen ari garen bitartean, geratu eta geure buruari, irakurtzen ari garenaren inguruko

galderak egin; irakurtzen ari garenari buruzko gogoeta egin eta gure aurre-ezagupenekin erlazionatu; irakurritakoa berriro irakurtzen hasi, testuaren esanahiaren inguruko ulermena garatzeko... estrategia hauek gutziak jar ditzakezue martxan IRRIA aldizkariarekin!

**Animatu, egin IRRIA aldizkariko harpidetza!**